

GAZTE NAIZ

Intelektualen betekizunez

Le Clézio frantses idazle gazteak, Sartre'ri buruz berriki mintzo zalarik, egia haundi hau esan zuen: «Les mauvais livres sont peut-être avant tout des livres inutiles». Liburu txarrak ez dira beharbadalperrikako liburuak baizik. Eta ekin zuen: «Le génie est peut-être tout simplement la plus grande adhésion au contrat social». Eta nik hunela bukatuko nuke: alperrikakoa izatea: horra hor euskal intelektualen arriskua.

Zalantzarik ez dago: euskaldun intelektualek gure herriaren katramillak eta sofrikariak bizi behar ditugu gugan. Gure liburuak gure garaieko liburu izan behar dute. Gure liburuak eta gure eginkizunak gure herriaren lekukotasunean eta laguntzan egingo ez bagenitu, alperrik idatziko genituzke. Gure herriaren lekuko izan behar dugu.

Zer behar da hortarako? Zer egin behar du euskaldun intelektualak? Gure herria barnetik eta sakonki ezagutu: gaurkoa eta atzokoa. Intelektual batek argi egiten lagundu behar du, eta huntarako bere herria eta bere mendea ezagutu behar ditu: ezagutu, maitatu eta nortu.

Sartre'k nortu egin ditu bere buruan, zion Le Clézio'k, azken urte hauetako problema nagusi guziak; eta horrek egin digu eredu eta irakasle.

Zer esango dugu, beraz, gure intelektual «abstrakto» batzuek? Zer esango dugu gure herria nortzeko asmorik ere ez duten horietaz? Zer esango dugu «egunon» oraindik esaten ikasi ez duten alienatu horietaz?

Sartre'k, esate baterako, frantses gehienek baino lehenago goraiatu zuen arjeliarren eskubidea. Ez ezinbestean eta marmarka; ausarki baizik, eta arjeliarrek berak baino lehenago hein batean. Viet Nam'go arazoan ez du itxogin aurten arte.

Gure arteko erdal sasi-intelektual horiek, ordea, ezinbestean, taktika hutsez, eta gure herriaren atzetik guttiz, gure euskaltzalasuna nondik moztuko eta lardazkatuko ari dira erloshuar. Gure herriaren aurretik jarri beharrean, arrastaka ikusten ditugu, herriat idelen aurrerapena nola edo hala frenatu nahiz; «esencialismo», «klase», «Europa», «sozialismo», eta asma ahal ditezkeen aitziak guziz batera erabiliz, euskal kulturatik eta kontra jokatzeak. Gure arteko izurrite sasi-jakintsu horrek alde batera utzi nahi du hizkuntza, «burgesa» dala esanez (??); eta gure Kondairaz ez du ezer jakin nahi, hau «erromantizismoa»

dala esanez (??). Izanaren eta Kondaira-nahiaren kontra jokatuz, Euskal Herri «berri» bat nahi omen dute. Zer pentsakera eta ze debru ekarriko ote digute haihek? Nondik nora izan ditezke horiek «gure» intelektualek? Nondik nora izan zitezkeen Soustello arjeliarren intelektual bat?

Gure herria gaurkoa da, bai; baiñan atzokoa ere bai. Zumalakarregi, Santa Kruz eta Etxahun herrikide ikusten ditugu: beren arteko eta geurekiko ere bai. Ez gera lehenengoak eta ez azkenak gure herria, nor bere gisara, maitatu dutenen illara luzean. Kapitalismoa dala-ta, ez dugu gure herriaren Kondaira beste alde batetik eteten edo apurtzen lagunduko: herri bat ez da belauñ bakar bat. Gure herria ez da gizon kopuru edo mordo abstrakto eta koloregabe bat, produzioan ari, kultura batean ere maitu dan alkatasun bat baizik.

Gauza txarra da, ez da dudarik, intelektual bat alperrikakoa gertatzea. Baiñan intelektual batek herriaren kontra jokatzeak ez du barkaziorik; eta alperrikakoa izatea baiño aisa larriagoa da.

Gure herriaren Kondaira, hain zuzen, intelektualek idatzi behar dute. Orain arte, eta anitz arrazoin ezagunengatik eta ez beti euskaldunen eskukoak, Kondaira hori ez dago egiñik, atalka eta erdizka baizik. Bidezkoa ote da gure intelektualek Kondaira egin behar horri uko egitea? Ez ote dute esan bada herri bat «es un conjunto de hombres en una tarea concreta»? Era berean gure Literatura ia-ia hasi gabea dalarik, ez ote dute esan «la lengua no es un concepto previo»? Zer intelektual-kasta dira «abstrakto» aizun horiek?

Gure herria langilleek osatzen dute, bai. Herriari ez-ikusia egingo liokean sasi-intelektuala onartu ezina izango litzake; eta horrelakorik zerbaiz izan bada, kontra gaude. Gure herriarekin bat egiten ez badugu, gure herria aras ez bagoaz, gure marfillezko dorrean egoteari atxikitzen badiogu, herriak ez-ikusia eta ez-entzuna egingo digu. Gure garaieko eta gure herriko abots, ispillu eta argi izan nahi dugu hain zuzen.

Baiña herri abstraktori ez dago; eta gure kulturen erro-rik itsatsen ez dan pentsakera, txit hitz jakintsu erabil-iliagatik ere, alperrikakoa ez-baiñan arrotza eta kaltegarria izango da.

Erkutatuko ahal dugu garaiz!

LARRESORO

Katolikoak sozialis- takin artu-emanak

Egunetik egunera, sozialismoaren izena lur artzen dir-joa. Egihonek ba-dirudi oso larritzen dituala zenbait kris-tiñau. Larriritan horrek berak, sindikatu eta langille auzien-tan ibazi-gabe, borondate onez, justizia'ren alde dabilzan langille katolikoak larrutzen ditu. «Eztauzen esan Aita San-tu Juan XXIII'garrenak bere enziklika Pacem in Terris'en, ba-dirala aintab arazo, aintab lan, katolikoak bai sozialis-tekini, edota nornai gizonekiñ batera egiñ beharreko eta egiñ lezaketanak? Oran ogeitamar urtetik gorako menta-lidada daukate nuntai.

Ogeitamar urtean ludiak aldaketa aundiak egiñ ditu, siñiskeri asko txirtxillatu eta gizapideak zeaztu. Eliza ber-ak ere, Batikano'ko bigarren Batzar Nagusian, ez-ditu akats gutxi atzerkatu, apal barkazioa oroz eskatu eta be-netako bidera berriz jo.

Gaurko kristauak ez-daukate zergaitik zalantzan bizi sozialismoari buruz. Elizak garbi erakutsi du, marxismoa-ren pilosofia, materialismoa, bere irakaskintzan duan so-zialismoa, katolikoentzat eragotzi dago.

Baia ba-dira sozialismoak, metafisika gaik utzita, bere egiteara edo programa, gizonaren berezko eskubideak zai-tu eta aurrera atera nahi dituztenak, adibidez, alobera obeak, zar-sari eta seguru naiko, ikastola eta goiko malla-ko irakaspide duakoak, erlixio, politika eta sindikatuen askatasuna...

Olako programa eziñ esan, katolikotasunaren mutiñ za-ti berezia ez-dala, eta ola izanik «nor debekatu sozialista izatea? ELIZAK EZ BEINTZAT.

Elizak debekatu duan sozialismoa, orain ogeitamar urte, oraini eta beti sozialismoa sortu zanetik, sozialismo-materia-lismoa izan da. Aintzakotzat ezditugu artu bear, apaz bat edo bestek geyegikerizko arduraz aotu zitun edo ditun «aldrebesleriyak».

Integristarik sutsuenak ere, ez-det uste izukeririk egin-go-lukenik, bai sozialista, bat beste erlixio gabeko ideak dituzten gizonekiñ bat egiteko, empresa batean, edo diru ugari emateko perspektibak litukean irabazpidean.

«Zergaitik ba-da aintbeste kezka eta purrustada, sozia-listekiñ edo beste edozein istekiñ lege eratsu eta zuzena ondoren lankide diren langille katolikuei?»

INTXIRRIBITAR DUNIXI

Baltzak eta zuriak

Bizona ezta ezagututen bere on eta txar egiñetan bal-tza edo beste margoduna dan. Gaiztotasuna edo ontasuna ez dago kolorean. Baiña bai bere barruko asmo eta gri-ñetan.

Azal baltzudun gizona ameriketara esklabo bidez eruen dabe. Esklabo onen saltzaleak euron anai baltzak ziran; baiño zuriak, euren azala euki ebanak, erosi.

Gizon baltza lanerako eruan dabe norteamerikara. Ge-yenak erri andi onen ego aldera, ango lur jaubearen lan-etan jokatuteko.

Gizon onek, eziran euron buruaren jaube. Bizia; ale-giña; eta eurok ziran gustia, jaubearenak ziran. Langille baltz onen izerdiaren alde, miserisko alagor edo jateko utza zan. Abere edo animal antzera bizi ziran.

Askatasunik ez euztzen emon euron izateari, Yankita-rrak eta Konfederatarrak guda izugarriko bat egin arte. Ordu ona zan esklabo arentzako gerrate mardirakatu au.

Gerrita amaituta, askatasuna emon euztzen esklaboari, bai. Baiño zelako bizi bidea izan dabe askatasun orren ur-rengo? Or dago oin eun urte aretatik onantza, norteame-riketarrak daukoen arlorik latz eta benetakoena. Ameti, gizon baltzari, eskubide bardiñakaz anai izena erotea. Baiño anai izena, era gustietako eskubideakaz. Bai zera. Norteamerikanik edozer jasotzen da.

Aikaitz edo paradojarik asko ikusten da ondasunez beterik dagon lur alde aretan. Ongille edo filantroporik asko bai dira erri onetan. Ezin ukatu: baiño gizon txarrik be ugari dira bertan. Ostantzian begiratu non loratu diran «mafia». «Klus Klus Klan», «Ganterrak», eta olan onen antzeko bazkun ilunak. Eta, iñun agertuteu ba'dira mai-tasun ta bardiñ aldeko asmoak... zenbat arriakokoak be izan dira: erriki gitxi edo bapez agertuten ebianak.

Antxiñakoki erakutsi euzkuen, zugata, beste gauza askoren artean, gaztetatik zuzendu bear izaten dala, os-

tantzian, apurtutako arrisku andia egoten daal. Eta egi sakona izan be.

Norteamerikan, baltzari ez gorriari, ez deutzie ezelako maitasunik izan. Eta al'balel, laster izkillo bidez estalduko leukié arraza onek euren begien aurretik. Erakutzie beint-zat olan ikusten dogu. Azal gorriak «reserbatan», eta azal baltzak, «ghetto» izena dauen tokiyetan. Kolore bi onek kayolan barruan.

Baltza edo gorria, anyak izaten dira norteamerikanuen-tzako gerra orduetan edo deporte gauzatan. Baiño eskola-tan; hospitalatan; trenatan; bar eta ziñetan ez diraz izat-en anyak. Baltza zein gorria, beko arraza da. Argitasun bakoá. Loya eta gaiztoa. Eruririk merezi ez daben giza-sema. Diñogun au gaur arte olan ikusi dogu.

Egia esateko ez dago eskubiderik arraza oneri egiten deutziena norteamedikanotarrak. Eta gitxiago kristotarrak dirala diñoen erriak.

Gaur asarre dira baltzak. Nor da errudun? Baltza? Zu-ria? Neu beintzat baltzaren alde nago.

Urria ezta naikoa erri baten zoriona yesarteko. Orrez gahera beste gauza baltzak bear dira: bardintasuna era gus-tietan.

Gaur norteamerikanok larrí dabilzaz edozer egiteko asmoetan baltzaren alde. Onentzako lana; ikastolak; al-gor obiak, eta beste bear diran gauza gustiak. Eta orañarte zer? Ez ete dira lengo baltzak onek gizonok? Ez gizona: iñori eziñ yako ezelako eskubiderik kendu. Gizonak, ko-lore ez bardiñak euki arren, danok gara bardiñak: Jakin-tsuak eta ez jakiñak. Baltzan eta goriaren artian bakarrík ez dagoz ez jakiñak. Zuriaren artian be makiña bat ez jakiñi eta gaitzirik asko dagoz.

Norteamerikan, ba, bere diruagaz iñongo erriaren eze-lako gauzatan sartu barik oia egingo leuke bere etxea arregla ba'leukie. Dirua ezta bakarrík errietara eruan bear dana, bakea, maitasuna eta lana baiño.

Urrunetara juan barik, or dauko bere etxetik urre norteamerikanok arlo ederra lana egiteko: Ego-Amerikan. Aren gosea eta ez-bardintasuna kenduta: Norteamerikata-ren mallera igon erasota. Lan au, ez egitekotan, itxi azke breste erri baltzak lagundu deuztzen egoamerikari.

Ikusten gagoz gaurko munduan, erri bik aginduten da-bena. Eta beste erri gustiak bi erri andi onen bildurragaz bizi dirana. Ezta ori benetako bidea mundu obeagoa ar-re-glateko.

Negarra; erioztea; apurtutzea dabil munduko leku as-kotan. Norteamerika eta Rusia konponenten eziran arte, beti izango dau gizonak asarrea. Gorrotoa.

Gaurko gizonak egarri asko daukaz. Lenengo Bakeare-na, eta bake onegaz batera anai izateko diran Justizia; Askatasuna ta Bardintasuna. «Jerez sortuten da gerra: ba-ño ze gatx izaten da bakea lortuten!»

Zoritxarrik geyenak munduko toki askotatik kentzeko, gizon osoaren egikerarik onena auxe izan biar litzake: ERII GOSEKILL eta ATZERAKORRARI lagundutea bai diruz eta bai teknika bidez. Erakutsita zelan erriaren bi-zitzia eratu. Ori izango litzake erri andiaren egikerarik on ta garbiena.

Norteamerika aberatsean, be, «etxe utsik ba'dago, an edo emen, ezta faltak gerra utsa». Eta olan da izan be: batzuek onduegi bizi, eta beste batzuek, abereek eurek baiño be txarrago.

Gure ba d be norteamerikatarrak eta baita rusitarrak be ezelako gauza onik egin munduan, ori da: LAGUNDU ta erri gosekil eta atzerakorrak, betik gora, ALTXATEN arma barik, lanagaz eta argitasunagaz.

Itzak, aixiak eruatzen dituz: lana da geratzen dana, egia da ta. Eta bide au ez artzekotan eta asmo onek baztertu, erri andi onek ez dagiela esan BAKE zaleak dirala, guzuzra da ta.

URKIDI